

Intxaurrondo

# Hau kuxidadea!

Aitor Navarro (fnoo.: 943 288919)

■ nor gutxiak pentsatuko luke argazkikoa inoiz futbol zelaia izan denik. Intxaurrondo zaharra eta berriaren artean dago, baina ez da futbol zelai gisa erabiltzen aspalditik.

Urte batzuetan erabili gabe egon eta gero, azkenean Kirol Udal Patronatuak zelaia kendu beharrean, zenbait talderi uztea erabaki zuen. Hasieran futbol talde batek erabili zuen entrenatzeko, ondoren beisbol talde batek, eta azkenean Kirol Udal Patronatuaren erabakiz, motokrosa egiteko egokitu zen.

## Lanak bukatu gabe

Kontuak kontu, Bera Bera rugby taldea dugu zelai horren azken apopilo. Gaur egun ondoko zelaian entrenatzen dute, Atotxako futbol zelai zaharreko belarra hara eramane eta gero. Kirol Udal Patronatuak zelaia txukuntzeko lanak hasi zituen arren, azken bi hilabeteetan lanak geldirik daudela azaldu digu Iñakik, Bera Bera rugby taldeko prestatzaile fisikoak. *"Makina guztiak eramane dituzte eta inork ez daki ezer. Ez dakigu noiz itzuliko diren lanera"* azaldu digu. Kirol Udal Patronatuko proiektu

## Futbol zelaia zena konpontzeko lanak ez aurrera ez atzera



Gaur egun zelaia egoera penagarrian dago. Konpontze lanak hasi ziren arren, geldirik daude gaur egun. Kirol Udal Patronatuak pazientzia eskatu dio Bera Bera taldeari.

eta obren arduradunak, Fermin Ijurkok, lanak oso motel doazela aitortu digu. *"Egia da lanen erritmoa makala dela baina ahal duguna egiten ari gara. Pazientzia eduki behar da"* adierazi du.

## Bera Bera zain

Bera Bera taldea lanak noiz bukatuko zain dago beraz. *"Ondoko zelaian entrenatzen dugu astean behin, asteartean hain zuzen. Beste*

**FERMIN IJURKO:**  
**«Lanen erritmoa makala da baina ahal duguna egiten ari gara»**

*bi egunetan Anoetara joaten gara. Zelai honetan bi txabola ditugu, bata aldagela gisa erabiltzen dugu eta bestea ariketa fisikoak egiteko. Bi aldagela horiek guk berreraiki genituen, haize eta euri asko egiten zuenean, aldagelak ureztatu egiten ziren eta haizeak teilatua eramane zuen gainera. Intxaurrondo Kirol Elkarteari laguntza eskatu behar diegu".* esan digu Iñakik.

Bera Berakoek ekintza asko egiten dituzte auzoan. *"Eskola eta ikastoletara joaten gara rugbya txikienei ezagutarazteko".* Taldearen egoera ekonomikoa ez da batere ona, baina aurrera egiteko asmoa dute. Aurten gainera nahiko ondo sailkatuta daude liga txapelketan baina oso jende gutxi joaten da haiek ikustera.

### Emakumearen Astea Larrotxenen

Hilaren 14tik 17ra XII. Emakumearen Astea egingo da Larrotxenen. Hilaren 14rako mahaingurua antolatu da arratsaldeko 19.00etan, Idoia Perez abokatua, Maribel Aranjuelo psikologoa eta Arantza Arrizabalaga Emakume Bulegoko kidearen partehartzearekin. Hilaren 15ean, 19.00etan, Emakume Ausartak taldearen "Hablemos de... eso" antzezlan ikusi ahal izango da. 16ean bideo foruma egingo da, eta 17an festa egingo da kultur etxean. Azken bi ekitaldiok 18.00etan hasiko dira.

JATETXEA



TABERNA

Birmingham kalea 3 • GROS  
 Tfnoa.: 943-27.35.04